

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2025eko abendua

Aurkibidea

1. BPGaren hazkundera
2. Afiliazioa Gizarte Segurantzari
3. Langabezia erregistratua
4. Inflazioa
5. Kanpo merkataritza
6. Europar Batasuneko aurreik.

Eranskina

1. EAEko ekonomia %2,3 hazi zen hirugarren hiruhilekoan

Hazkunde hori bat dator Ekonomia Zuzendaritzaren aurreikuspenarekin

2. Afiliazioaren errekor historiko berria azaroan

Euskadik 1.036.074 afiliaturekin amaitu zuen hilabetea, hau da, urrian baino 4.404 pertsona gehiagorekin

3. Azaroan berriro jaitsi da langabezia

Azaroa 106.486 langaberekin itxi zen, 2008tik azaroko baliorik baxuena

4. Euskadiko inflazioa %3,2 izan zen urrian

Azpiko inflazioa %2,5era jaitsi zen

5. EAEko atzerrirako esportazioak %3,6 jaitsi dira urtariletik irailera

Inportazioek, aldiz, ibilbide positiboa izan dute

6. 2025erako aurreikuspenak hobetu dira, baina 2026ra begira zuhertasunari eutsi zaio

EBko BPG erreala %1,4 handitzea espero da, bai 2025ean, bai 2026an, eta %1,5 2027an


EAEko ekonomia %2,3 hazi zen hirugarren hiruhilekoan

BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

3. HIRUHILEKOA

%2,3




Eustatek argitaratutako datuen arabera, 2025eko hirugarren hiruhilekoan euskal ekonomiak hazkunde-bide sendoa mantendu zuen, BPG %2,3 haziz urte arteko tasan, Ekonomia Zuzendaritzaren aurreikuspenen ildotik. Gainera, hiruhileko arteko tasan, BPGk %0,6 egin zuen gora, aurreko hiruhilekoaren aldean nolabaiteko azelerazioa erakutsiz.

Euskal ekonomiaren hazkundea barne eskariaren

dinamismoak azaltzen du, urte arteko %3,2 hazi baitzen, azken kontsumoko gastuak (%2,7) eta kapital eraketa gordinak bultzatuta, zeinak hazkundea %4,9raino bizkortu baitzuen. Aitzitik, kanpo arloaren ekarpena negatiboa izan zen, esportazioek (-%1,8) inportazioek (-%0,6) baino jaitsiera handiagoa izan zutelako, Europako merkataritza bazkide nagusien ahuleziak eta nazioarteko ziurgabetasunak markatutako testuinguru batean.


KONTSUMO PRIBATUA

Urte arteko aldakuntza tasa




KONTSUMO PUBLIKOA

Urte arteko aldakuntza tasa




INBERTSIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




ESPORTAZIOAK

Urte arteko aldakuntza tasa



ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA


Urte arteko aldakuntza tasa



Eskaintzaren ikuspegitik, eraikuntza izan zen sektorerik dinamikoena, urte arteko %5,0ko hazkundearekin; zerbitzuak, berriz, hazkundearen eragile nagusi gisa finkatu ziren, balio erantsia %2,9 handituz. Zerbitzuen artean, merkataritza, ostalaritza eta garraioko taldea %3,5eko hazkundearekin nabarmendu zen, 2023ko amaieratik izan duen aurrerapen handienarekin. Sektore publikoari lotutako jarduerak (administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak) erritmo egonkorragi eutsi zioten (%2,1). Azkenik, industriaren sektoreak dinamika ez oso hedakorrean jarraitzen du.


INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.



Ekonomia, Lan eta
Enplegu Saila

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Afiliazioaren errekor historiko berria azaroan

Euskadik Gizarte Segurantzako afiliazioaren maximo historiko berri bat lortu zuen azaroan. Lurrealdeak 1.036.074 afiliaturekin amaitu zuen hilabetea, hau da, urrian baino 4.404 pertsona gehiagorekin (%0,4). Zenbaki horrek aurreko errekorra gainditzen du, eta lan merkatuaren sendotasuna islatzen du. Urte arteko konparazioan, afiliazioa 13.176 langiletan hazi zen, aurreko urteko azaroan baino %1,3 gehiago.

Sexuaren arabera analisiak bilakaera ia paraleloa erakusten du gizonen eta emakumeen artean. Urte arteko datuei dagokienez, afiliazioa %1,3 hazi zen bi kasuetan, 6.695 gizon eta 6.462 emakume gehiago. Hala ere, hileko alderaketak erakusten du dinamismo handiagoa dagoela emakumeen artean, %0,6ko hazkundearekin, eta gizonen kasuan, aldiz, %0,2ko hazkundea izan da.


GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa


AZAROKO AFILIAZIOA

%1,3




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa




AFILIAZIOA INDUSTRIAN

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



Sektoreka, eraikuntza izan zen eremurik aktiboen, % 2,6ko hazkundearekin; industriak, berriro, ia aldaketarik gabe iraun zuen (%0,1). Zerbitzueta enplegua 8%1,5) ere nabarmen hazi zen. Jarduera adarre dagokienez, zerbitzu pro-

fesional eta sanitarioetan izandako igoerak nabarmen dira, 2.000 alta berri baino gehiagorekin. Aldiz, merkataritzak, etxeko lanak eta nekazaritzak atzerakadak izan zituzten.

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK

	2024ko azaroa	2025eko azaroa	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	1.022.898	1.036.074	13.176
Industria manufakturagileak	175.396	175.470	75
Merkataritza	135.889	135.649	-240
Osasun arloko jarduera	116.015	118.425	2.410
Hezkuntza	85.783	87.349	1.566
Ostalaritza	72.354	73.587	1.232
Administrazio jarduerak	69.527	71.861	2.334
Lanbide jarduerak	64.617	66.497	1.880
Eraikuntza	59.023	60.579	1.556
Administrazio publikoa	51.638	51.990	352
Garraioa	46.725	48.034	1.309
Informazioa eta komunikazioa	28.467	28.771	304
Etxeko langileak	28.056	27.792	-264
Bestelako zerbitzuak	26.960	26.843	-118
Jarduera artistikoak	20.234	20.731	497
Finantza jarduerak	17.390	17.674	283
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	11.335	11.048	-287
Ur horniketa	6.699	6.826	127
Higiezen jarduerak	4.389	4.477	88
Energia horniketak	1.772	1.799	27
Erauzketa industriak	540	577	37
Lurraldez kanpoko erakundeak	89	98	9

Iturria: Gizarte Segurantza.

LANGABEZIA ERREGISTRATUA

Azaroan berriro jaitsi da langabezia

Langabeziari dagokionez, Euskadik beheranzko joerari heldu zion berriro, azaroa 106.486 langaberekin itxi baitzuen, 2008tik azaroko baliorik baxuena. Urte arteko datuei dagokionez, 14 hilabetez jarraian egin dute behera, eta azaroan %13 jaitsi dira. Urriarekin alderatuta, beherakada batez ere emakumeen (-944) eta 25 urtetik beherako gazteen (-305) artean gertatu zen. Kontratazioari dagokionez, 2018tik urrian izaten

den ohiko moderazio txikia oraingoan ere izan da, eta kontratazioak %0,8ko jaitsiera jasan du. Hala ere, 61.868 kontratu formalizatu ziren, eta horietatik 14.177 mugagabeak izan ziren, hau da, kontratu guztien %22,9, eta lan egonkortasun handiagorako joera berresten du. Ostalari-tza sektorea izan zen dinamikoena, 9.000 kontratu berri ingururekin.


LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

LANGABEZIA ERREGISTRATUA.


AZAROA

-%1,3




LANGABEZIA ERREGIST. EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA. GAZTEAK


Urte arteko aldakuntza tasa



Lurralde historikoka, joera positibo hori hiru lurralde historikoetara zabaldu zen, baina Bizkaiko bilakaera nabarmendu zen, 804 langabe gutxiagorekin. Sektoreka, Gabonetako erosketen aurreko aldi horretan, jaitsierarik handiena txikizkako merkataritzan izan zen, eta ondoren,

LANGABEZIA. ATZERRITARRAK

Urte arteko aldakuntza tasa



egoitza establezimenduetan. Azkenik, adierazi behar da langabeziaren irteera gehienak aldeztu aurretik lan esperientzia zuten pertsonen egokitu zitzazkiela, eta eskatzaile berrien sarrerek, berriz, gora egin zutela.

LANGABEAK

	2024ko azaroa	2025eko azaroa	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	107.894	106.486	-1.408
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	18.315	18.053	-262
Bizkaia	61.058	60.254	-804
Gipuzkoa	28.521	28.179	-342
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	45.744	44.892	-852
Emakumeak	62.150	61.594	-556
25 urtetik beherakoak	9.594	9.410	-184
25 urte baino gehiago dutenak	98.300	97.076	-1.224
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	2.047	1.938	-109
Industria	10.250	10.342	92
Eraikuntza	5.819	5.431	-388
Zerbitzuak	75.526	74.323	-1.203
Lehenago lan egin dutenak	93.652	92.034	-1.618
Lehenago lan egin ez dutenak	14.242	14.452	210
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarrak	20.589	21.000	411

Iturria: SEPE.




Ekonomia, Lan eta
Enplegu Saila

INFLAZIOA

Euskadiko inflazioa %3,2 izan zen urrian

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Urrian, urte arteko KPIa %3,2 hazi zen, aurreko hilabeteen baino hamarren bat beherago. Azpiko inflazioa ez zen ia aldatu, hamarren bakar bat atzera egin baitzuen %2,5eraino. Hondar inflazioak, aldiz, gorakada handia izan zuen, %7,3ra iritsi baitzen, elektrizitatearen eta elikagai ez landuen garestitzeak bultzatuta.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2023	2024	2025eko urria	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	3,6	3,1	3,2	3,2
Azpiko inflazioa (%84,8)	6,2	3,2	2,5	2,1
- Elikagai landuak (%14,8)	12,5	4,6	2,2	0,3
- Industria ondasunak (%20,2)	4,7	1,2	0,4	0,1
- Zerbitzuak (%49,8)	4,3	3,5	3,5	1,7
Hondar inflazioa (%15,2)	-6,4	2,6	7,3	1,1
- Landu gabeko janariak (%6,4)	7,3	4,0	7,4	0,5
- Energia (%8,8)	-17,0	1,0	7,1	0,6


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




ELIKAGAIEN PREZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



ZERBITZUEN PREZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



Taldekatu datuen arabera, aurreko hilabeteetan bezala, etxebizitza, ura, elektrizitatea eta beste erregaiak taldeak izan zuen hazkunderik handiena (%7,4), elektrizitatearen sektorean erregulazio aldaketek sortutako garestitzeak bultzatuta. Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak %3,7 garestitu ziren, produktu freskoen eta olioaren gorakadaren ondorioz. Jatetxeak eta hotelek ere erritmo altuari eutsi zioten (%4,4), turismo jardueraren luzapenez baliatuta. Bestalde, garraioak %2,6raino egin zuen gora, erregaien beherakada

txikiagoa eta deskontuak kendu ondoren aire eta tren garraioak izandako prezio gorakada dela eta. Jaitsiera izan duten taldeen artean, jantziak eta oinetakoak (-%0,5) eta, oporraldia amaitu ondoren, aisia eta kultura (-%0,6) nabarmentzen dira. Oro har, azpiko inflazioak egonkor dirau, baina EBZren helburuaren gainetik jarraitzen du. Bestalde, hondar inflazioak goranzko joera mantentzen du, energiaren prezioen aldakortasunak eta elikadura katean kostu handiagoek eraginda, elikagai freskoen prezioek gora egin baitute.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2025eko urria

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	3,2	3,1	2,1
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	3,7	2,4	2,4
Edari alkoholikak eta tabakoa	3,8	4,1	2,7
Jantziak eta oinetakoak	-0,5	0,5	0,6
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	7,4	7,5	1,6
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,4	0,9	0,5
Osasuna	2,5	2,2	2,2
Garraioa	2,6	2,4	1,7
Komunikazioak	1,8	1,8	-0,6
Aisia eta kultura	-0,6	0,1	1,3
Hezkuntza	2,1	2,5	3,5
Jatetxeak eta hotelak	4,4	4,4	3,6
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	3,3	3,4	3,8

Iturria: INE eta Eurostat.


EAEko atzerrirako esportazioak %3,6 jaitsi dira urtariletik irailera

ESPORTAZIOAK GUZTIRA

Miloi euro

ESPORTAZIOAK GUZTIRA. URTARRILETIK IRAILERA PILATUA

-%3,6



Eustatek argitaratutako datuen arabera, urtariletik irailera bitarteko atzerrirako guztizko esportazioek %3,6ko beherakada izan zuten, hau da, uzkurdura esanguratsua, baina 2024ko aldi berean ikusitakoa baino txikiagoa (-%5,0). Jaitsiera berri hori gorabehera, portaera globalak positiboa izaten jarraitzen du termino historikoetan: esportatutako bolumena serie osoko laugarren erregistrorik onena da, eta nabarmen gainditzen du azken hogei urteetako batez bestekoa, 16.795 milioi


eurokoa baita. Datu horrek erakusten du, erritmoa moteldu den arren, kanpoko jarduera mailak kota altuetan jarraitzen duela.

Uzkurtze hori azaltzen duten faktoreen artean nabarmentzekoak dira muga zergen guda, euskal esportazioetan eragin zuzena duena, eta bazkide komertzial nagusien ahultasuna, horien dinamismo txikiagoa sektore estrategikoei eragiten ari baitzaie bereziki.

ESPORTAZIO EZ ENERGETIKOAK.

URTARRILETIK IRAILERA PILATUA


Miloi euro



ENERGIAKO ESPORTAZIOAK.

URTARRILETIK IRAILERA PILATUA

Miloi euro



ESPORTAZIOAK HELMUGAREN ARABERA. URTARRILETIK IRAILERA PILATUA

Herrialdea	Pisua %	Ekarp. %
Alemania	14,9	0,1
Frantzia	14,8	-2,0
Erresuma Batua	6,5	-0,8
Italia	6,1	-0,1
AEB	5,9	-0,8
Portugal	4,7	0,0
Belgika	4,1	-1,0
Herbehereak	3,6	-0,6
Polonia	2,8	0,1

Izan ere, Alemaniako merkatuan ibilgailu automobilen salmentak guztizko esportazioen hazkundera erakarri zuen (%0,1), baina gainerako herrialdetara bidalitako esportazioek tasa negatiboak izan zituzten, eta, gainera, kontraktiboak izan ziren. Saldutako produktu motari dagokionez, ekipamendu ondasunen hobekuntza ez zen nahikoa izan produktu energetikoen eta metal arrunten gainbehera konpentsatzeko, bereziki burdinaren galdaketan eta horien enbusturetan, bai eta kobreak ere.


ESPORTAZIOEN BANAKETA. URTARRILETIK IRAILERA PILATUA

Arantzel taldea	Pisua %	Ekarp. %
Ekipamendu ondasunak	50,8	1,3
Garraio materiala	28,6	1,2
Makinak eta aparatuak	22,2	0,1
Ohiko metalak eta manuf.	20,9	-1,3
Nekazaritzako produktuak	6,2	0,8
Plastikoa eta kautxua	5,3	-1,0
Produktu min.eta energetikoak	4,3	-2,8
Produktu kimikoak	3,4	0,16
Papera	2,3	-0,4

Inportazioei dagokienez, bolumena 20.532 milioi eurotik gorakoa izan zen, historiako hirugarren erregistrorik handiena, %0,7ko hazkunderekin. Hazkundera moderatua bada ere, esanguratsua da 2024an izandako uzkurduraren ondoren. Produktu energetikoak alde batera utzita, bilakaerak hobera egin du, %1,9ko igoeraraino. Ondorioz, merkataritza saldoa superabitarioa izan zen berriro, eta 1.726 milioi eurora iritsi zen.

INPORTAZIOAK GUZTIRA URTARRILETIK IRAILERA PILATUA


Milioi euro



Iturria: Eustat

SALDOA GUZTIRA URTARRILETIK IRAILERA PILATUA

Milioi euro




EUROPAKO BATZORDEAREN AURREIKUSPENAK

2025erako aurreikuspenak hobetu dira, baina 2026ra begira zuhurtasunari eutsi zaio

EUROPAR BATASUNAREN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Europako Batzordeak adierazi duenez, EBko ekonomiak erresilientzia nabarmena erakutsi badu ere azken shock globalen aurrean, datozen urteetarako aurreikusitako hazkundeak moderatua izango da. EBko BPG erreala %1,4 handitzea espero da 2025ean eta 2026an, eta %1,5 2027an; eurogunea, berriz, %1,3 haziko litzateke 2025ean, %1,2 2026an eta %1,4 2027an. Inflazioak beheranzko joerari eutsiko dio, eta %2,5ean kokatuko da EBn 2025ean, %2,2ra jaitsiz 2027an, eurogunean %2,0 inguruan egonkortuz.

BPG. EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2025	2026	2027	2025	2026
Europar Batasuna	1,4	1,4	1,5	0,3	-0,1
Eurogunea	1,3	1,2	1,4	0,4	-0,2
Alemania	0,2	1,2	1,2	0,2	0,1
Belgika	1,0	1,1	1,3	0,2	0,2
Espainia	2,9	2,3	2,0	0,3	0,3
Frantzia	0,7	0,9	1,1	0,1	-0,4
Italia	0,4	0,8	0,8	-0,3	-0,1
Herbehereak	1,7	1,3	1,7	0,4	0,1
Portugal	1,9	2,2	2,1	0,1	-
Irlanda	10,7	0,2	2,9	7,3	-2,3
Grezia	2,1	2,2	2,0	-0,2	-
Austria	0,3	0,9	1,2	0,6	-0,1


ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




FRANTZIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Batzordeak ohartarazi duenez, Europako ekonomiak kanpo ingurune zailari egin behar dio aurre oraindik ere, AEBetako muga zergak ia maila ezezagunetan ezarriz, nazioarteko merkataritza ordena aldatu eta ziurgabetasuna sortu baitute. Horrela, esportazio merkatuen hazkundera moteldu egingo da, eta kanpo sektoreak hazkundera egingo dion ekarpena negatiboa izango da 2025ean eta 2026an, neutro bihurtuz 2027an. Egiturazko faktoreek, hala nola biztanleriaren zahartzeak eta produktibitatearen hazkunderen moteltzeak, Europako ekonomien hedapen potentziala mugatzen

KPI. EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2025	2026	2027	2025	2026
Europar Batasuna	2,5	2,1	2,2	0,2	0,2
Eurogunea	2,1	1,9	2,0	-	0,2
Alemania	2,3	2,2	1,9	-0,1	0,3
Belgika	2,8	1,8	2,0	-	-
Espainia	2,6	2,0	2,0	0,3	0,1
Frantzia	1,0	1,3	1,8	0,1	0,1
Italia	1,7	1,3	2,0	-0,1	-0,2
Herbehereak	3,0	2,5	2,1	-	0,5
Portugal	2,2	2,0	2,0	0,1	-
Irlanda	1,9	1,9	1,7	0,3	0,5
Grezia	2,8	2,3	2,4	-	-
Austria	3,5	2,4	2,2	0,6	0,3

Iturria: Europar Batzordea eta Eurostat.



Ekonomia, Lan eta
Enplegu Saila

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024	2024		2025		
			III	IV	I	II	III
BPG	3,0	2,5	2,3	2,0	2,1	2,2	2,3
Barneko azken kontsumoa	1,9	2,8	2,3	2,4	2,4	2,3	2,7
Familien kontsumoa	2,0	2,5	1,9	2,2	2,6	2,9	2,8
Administrazioaren kontsumoa	1,9	3,5	3,9	3,1	1,9	0,2	2,2
Kapital eraketa gordina	2,4	2,7	2,5	2,2	2,3	3,5	4,9
Barne eskaria	2,1	2,8	2,4	2,4	2,4	2,6	3,2
Esportazioak	-1,1	0,1	2,6	0,6	2,0	0,8	-1,8
Inportazioak	-2,2	0,4	2,6	1,1	2,4	1,4	-0,6
Lehen arloa	12,2	4,3	3,4	3,4	0,6	-0,4	-1,5
Industria eta energia	2,2	2,0	1,8	0,7	0,4	0,1	0,2
Eraikuntza	4,2	2,0	1,4	1,3	1,7	3,1	5,0
Zerbitzuak	3,3	2,9	2,7	2,5	2,7	2,8	2,9
Balio erantsi gordina	3,2	2,6	2,4	2,0	2,1	2,1	2,4
Ekoizkinen g/ zerga garbiak	1,7	1,6	1,4	1,9	2,3	2,4	2,2
Enplegua	1,8	1,8	1,6	1,6	1,5	1,4	1,4

2024ko datuak aurrerapena dira eta 2025ekoak behin-behineko datuak dira.

EUSKAL EKONOMIAREN TERMOMETROA. EKONOMIA ZUZENDARITZA

Urria

2024		2025									
Azaroa	Abend.	Urt.	Otsa.	Mar.	Apir.	Mai.	Eka.	Uzt.	Abuz.	Iraila	Urria
97,9	96,3	99,4	95,8	94,3	93,5	95,1	99,3	103,0	102,7	103,1	103,8

X<50
Atzeraldia

50<X<100
Hazkunde leuna

X>100
Hazkunde bizia

Urrian, Euskal ekonomiaren termometroa 103,8an kokatu zen, hazkunde sendoaren eremuan mantenduz. Hilabeteko batez besteak berriz ere barne eskariaren eta kanpo eskariaren bilakaeraren arteko desoreka erakusten du. Kontsumo pribatuak hazkunde esanguratsua mantentzen du, nahiz eta kontsumo publikoaren aurrerapena apalagoa izan, eta inbertsioak oso hazkunde tasa altuak izaten jarraitzen duen. Ildo horretan, eraikuntzak eta zerbitzuek bereziki bilakaera positiboa erakusten dute, eta jarduera orokorraren hazkundera eusten laguntzen dute. Aitzitik, industria sektoreak, kanpo eskariaren narriaduraren eraginpean, berriz ere bilakaera negatiboa izan du.



ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

IRAILEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ZUZENDARITZA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2025	2025	2026				2026
	IV		I	II	III	IV	
BPG	2,2	2,2	2,0	2,0	1,9	1,9	1,9
Barneko azken kontsumoa	2,3	2,3	2,2	2,3	2,1	1,9	2,1
Familien kontsumoa	2,5	2,7	2,3	2,2	2,2	2,0	2,2
Administrazioaren kontsumoa	1,6	1,2	1,7	2,7	1,7	1,5	1,9
Kapital eraketa gordina	3,3	3,1	3,1	1,7	2,1	2,4	2,3
Barne eskariaren ekarpena	2,5	2,5	2,4	2,2	2,1	2,0	2,2
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,3	-0,3	-0,4	-0,2	-0,2	-0,1	-0,2
Lehen arloa	4,1	2,5	0,5	0,8	0,4	0,9	0,7
Industria	1,0	0,4	1,5	1,6	1,6	1,7	1,6
Eraikuntza	2,6	2,5	2,3	1,5	1,8	2,4	2,0
Zerbitzuak	2,5	2,7	2,2	2,1	2,0	1,9	2,1
Balio erantsi gordina	2,2	2,1	2,0	2,0	1,9	1,9	2,0
Ekoizkinen g/ zerga garbiak	2,6	2,5	1,4	2,0	1,7	1,7	1,7
Lanaldi osoko lanpostuak	1,2	1,4	1,1	1,2	1,1	1,0	1,1
Landunak (BJA)	1,1	1,3	0,9	1,2	1,2	1,1	1,1
Langabezia tasa	6,5	6,4	6,7	6,2	6,1	6,3	6,3

EAEKO BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2025	2026		2025	2026
Ceprede	2,3	1,9	Euskal ganberak	2,2	—
BBVA	2,3	1,4	Caixabank	2,0	—
Hispalink	2,2	2,3	Laboral kutxa	2,0	1,7
Eusko Jaurlaritza	2,2	1,9	Confebask	1,8	—

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024	2024		2025		
			III	IV	I	II	III
BPG	2,5	3,5	3,6	3,7	3,1	3,0	2,8
Kontsumo pribatua	1,7	3,0	3,2	3,8	3,8	3,3	3,3
Kontsumo publikoa	4,5	2,9	3,2	2,4	2,0	1,9	1,3
Kapital finkoaren eraketa gordina	5,9	3,6	1,9	5,1	5,0	5,2	7,6
- Aktibo finko materialak	4,4	3,3	2,0	5,7	5,0	5,4	7,9
- Eraikuntzan	5,5	4,0	3,7	5,7	2,9	3,4	6,4
- Ekipamendu ondasunetan	2,6	1,9	-0,9	5,7	8,9	9,3	10,8
- Landutako baliabide biologikoak	-4,1	6,0	8,0	9,2	7,8	7,0	6,1
- Jabetza intelektualaren produktuak	12,3	4,6	1,4	2,6	5,1	4,3	6,4
Nazio eskaria (ekarpena)	1,6	3,3	3,3	4,0	3,6	3,5	3,7
Esportazioak	2,2	3,2	4,9	3,2	3,4	4,1	3,2
Inportazioak	0,0	2,9	4,3	4,4	5,1	6,1	6,1

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2025	2026		2025	2026
BBVA Research	3,0	2,3	Repsol	2,9	2,0
EthiFinance Ratings	3,0	2,3	CEPREDE-UAM	2,8	2,2
AFI	2,9	2,2	Instituto Estudios Económicos	2,8	2,2
Caixabank Research	2,9	2,1	Santander	2,8	2,0
Cámara de Comercio de España	2,9	1,9	Universidad Loyola Andalucía	2,8	2,4
CEEM-URJC	2,9	2,1	Intermoney	2,7	2,0
CEOE	2,9	2,3	Consenso (batez bestea)	2,9	2,1
Equipo Económico (Ee)	2,9	2,3	AIReF (urria 2025)	3,0	2,1
Funcas	2,9	1,9	EB (azaroa 2025)	2,9	2,3
ICAE-UCM	2,9	2,3	NDF (urria 2025)	2,9	2,0
Mapfre Economics	2,9	1,9	Gobernua (iraila 2025)	2,7	2,2
Metyis	2,9	1,9	Espainiako Bankua (iraila 2025)	2,6	1,8
Oxford Economics	2,9	2,3	ELGA (abendua 2025)	2,9	2,2

Iturria: Funcas.



ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024	2024		2025		
			III	IV	I	II	III
AEB	2,9	2,8	2,8	2,4	2,0	2,1	—
Txina	5,2	—	4,6	5,4	5,4	5,2	4,8
Japonia	1,5	0,1	0,4	1,1	1,8	2,0	1,1
Kanada	1,5	1,6	1,4	1,9	2,3	1,2	0,7
Europar Batasuna	0,4	1,1	1,1	1,5	1,7	1,6	1,6
Eurogunea	0,4	0,9	1,0	1,3	1,6	1,5	1,4
Alemania	-0,9	-0,5	-0,6	-0,2	0,2	0,3	0,3
Frantzia	1,4	1,2	1,1	0,6	0,6	0,7	0,9
Erresuma Batua	0,3	1,1	1,4	1,9	1,8	1,4	1,3
Italia	1,0	0,7	0,6	0,5	0,8	0,5	0,6
Herbehereak	-0,6	1,1	2,0	2,2	2,5	1,7	1,4

Iturria: Eurostat eta ELGA.

CONSENSUS FORECAST. 2025EKO AZAROA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2025	2026	2025	2026	2025	2026
AEB	2,0	2,0	2,8	2,8	4,3	4,5
Japonia	1,0	0,6	3,1	1,8	2,5	2,5
Kanada	1,1	1,1	2,0	2,0	6,9	6,8
Europar Batasuna	1,3	1,3	2,2	1,9	—	—
Eurogunea	1,3	1,1	2,1	1,8	6,3	6,3
Alemania	0,2	1,1	2,2	2,0	6,3	6,2
Frantzia	0,8	0,9	1,0	1,4	7,4	7,6
Erresuma Batua	1,4	1,0	3,4	2,5	4,7	4,9
Italia	0,5	0,7	1,7	1,5	6,2	6,2
Espainia	2,9	2,1	2,5	2,0	10,5	10,0
Herbehereak	1,5	1,1	3,1	2,3	—	—

Iturria: Consensus Forecast.